



### Lana / La obra

Meursault bulegari arrunt bat da, ama guztiak bezala azkenean hil egiten diren ama horietako baten semea; bizilagun arruntak ditu, lankide arruntak, taberna arrunt batean bazkaltzen du, neskalagun arrunt bat du, edozein hondartzara joaten da bainatzera. Harik eta egun batean, hondartza batean, eguzki kiskalgarri baten itxututa, arabiar bat hiltzen duen arte, ia nahi gabe: arabiar bat, ez du izenik. Kartzela, auzia, epaia, heriotza-zigorra. Zer zentzu du horrek guztiak? Nor epaitu dute? Zer epaitu dute? Patuak, izatearen bakardadeak badute zentzurik?

*"Si tu veux être philosophe, écris des romans."* "Filosofoa izan nahi baduzu, idatzi eleberriak", aholkatu ohi zuen Albert Camusek.

### Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Arrotza**

Egilea / Autor: **Albert Camus**

Saila / Colección: 4nak, 3

Azaleko irudia / Imagen de cubierta: Ivan Landa

ISBN / EAN: 978-84-9109-225-4

Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 160

Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

### Egilea / El autor

**Albert Camus** (Mondovi, Aljeria, 1913 - Villeblevin, Frantzia, 1960). Idazle eta filosofo frantsesa. Kazetari konprometitu ere izan zen, nazien okupazio garaian erresistentzian militatzeraino. Haren jarrera militanteak eragin handia izan zuen XX. mende osoan. Haren literatur obran badira antzerkiak, eleberriak eta saiakerak. 1957an literatur Nobel saria eman zioten. Harenak dira, besteak beste, idazlan hauek: *Arrotza* (1942), *Izurria* (1947), *La chute* (1956) eleberriak; *Sisyforen mitoa* (1942), *Gizon matxinatua* (1951) saiakerak; *Kaligula* (1938), *Le malentendu* (1944), *Gizon zuzenak* (1949) antzerkilanak.

